

Baserriaren alde

Luciano Aristizabal

Emen nazute berriro, baserriaren alde nere ondar alea jartzeko asmotan. Nere lengo lantxoa, Munibe'n azaldu zana, batzuek eta besteak zarakatu zuten; eta emengo zaratak aski etziralara, Paris'tik ere eskatu ziraten baimena Zuña'z niona Prantzes izkuntzara itzuli ta, ango izparingietan azaltzeko; eztakit azaldu dan, nik baimena bialdu niyon.

Zarata esan det, zarata eta otsa bai, baña intxaurrik ez; batzuen batzuek ontzat artuko zuten nere lantxoa, baña, badakit belarri ondoan osiñakin ikututa baño minberago geldituak badirala, eta intxaurrak eman lezazketen oyetaquak gañera, eta duanak ezpadu ematen, ez dan tokitik jaten, lan zalla.

Gaur ez nuke osiñik ibilli nai, iñor minberatu ez dedin, baña lengoan niyon bezela, baserritarra naiz, eta ez jakiña; irrixtadan bat egingo banu ez aintzakotzat artu.

Munibe'ko lanean azaldu zanez, piñua, baserritarren etsai gogor bat bezela azaltzen nuan; ori utzi dezagun dagon lekuan, gaur beste bi etsai aztertu nai ditut, eta España aldera begiratu ezkerre, irugarrena ere or nombait; baña irugarren orren aurka Españaiko gobernua neurriyak artu zitun aspaldi, "Instituto Nacional de Colonización" en bitartez, eta ikustekoa. da or, Jaén, Badajoz, Bearagoi, eta beste tokietan egin duan lan egokiya; lur geyegi duanari kendu, nekazarien artean arrazoizko sallak banatu, erri berriyak sortu eta nekazari lanak aurrerapen bidez egiteko moduak egin. Etsai ori "Latifundio" izenarekin ezagutzen da, eta etsai orrek, Euskerazko izena izateko arrazoirik ez dauka; Euskalerrriyan epaita ezagutzen etsai orren aztarnik.

Bai ordea beste bi etsai, gogorrenetakuak gañera; bat, lur gutxiren jabetza "minifundio", eta bestea jakin-eza, "incultura". Bigarren au denetan aundiya eta zitalena ezpairik gabe.

LENENGO ETSAYA

Lur gutxiren jabetza, edo mugarriyak ugariegi, "minifundio". Etsai au, eunka urtietan gure artian egon arren, gure aurrekoak etzuten ezagutzen; gure mendi ta bazterrak gaztañez estalita zeudeleko, eta igali onek, urtian erdiko janariya, naiz berentzat, eta naiz txerri ta abereentzat ematen ziyen; eta bear zuten zura eta egurra zer esanik ez.

Gaur ordea, gaztaña gure mendietatik esku-tatu da, eta gaztañen ordez, Euskalerrri guztiya "kamposantu" itxuran jartzen duten piñu beltzez estalita daukagu.

Eta gaztaña galdu eta piñua gallentzen joan dan bezela, emengo nekazaritza, pixkan pixkan laño beltzez estali eta ugaldea gañera etorri zaigu; nola ugaldea ezpaitan gelditzen eta bere aurrean jartzen dana, edo urak eraman, edo ito ta geldituko da. Gure artetik ere ugaldeak, zenbait baserritar kale aldera eraman ditu, eta gelditu geranok ere larri.

Oraindik badira gauzak len bezela ongi zeudela, eta eskolak galdua degola mundua esaten dutenak; baña, oyek ez dira konturatzen, nola soñua jo, ala dantzatu bear dala; eta aspaldian, Europa'ko eta Ameriketako orkestak, guk dantzatu eziñeko soñuak jotzen dizkigute; makinaz eta teknika, auda, aurrerapen bidez lan egin bear dala jotzen digute soñua, eta guk ori ezin dantzatu, "minifundio" etsai zitalak lotuta bagauzka; izan ere, baserritar batek. Nola erosi makina oyek?... Batez ere maisterra bada; berak lantzen dituan lurrak baño geyago baliyo badute ... Eta askotan errentakin ere larri ibiltzen bada?

Etsai orrentzat ere gobernua neurriyak artu zitun, "Concentración Parcelaria" ren bidez; baña ori toki guztietara nai bezin azkar ezin iritxi dalako, ugaldea kalte ikaragariyak egiten ari zaigu. Gañera neurri ori, gure baserrietako zuzentasuna danik ez nago; zergatik? Emengo

baserritarrak, geyenak beintzat, ainbeste izerdiz busti eta eguzkitik eguzkira eta askotan illargitan ere lan egiñaz landutako lurrak utzi bearra, mingarri litzakelako.

Eta gañera esan degu ugaldea ez dala gelditzen, ugaldeari didea jarri bear zayo, aldan kalterik gutxiena egin eta igaro dedin; eta nola azkar ibilli bearra dagon, biderik egokiena “elkarlaguntza” degu.⁽¹⁾ Zuñiga'n egin dutena; erri guztiko lurrak elkarlaguntza'ren esku utzi, eta onek lur guztiyak bere gañ landu; jakiña makina eta “tecnica” edo aurrerapen bidez; ori baita erbesteko orkestaren soñua. Ezta bearrezkoa erri guztiya elkartzea, elkarren inguruko baserri mordoska bat elkartzea aski da, maki-naaz lan egiteko eran jarri ezkerro. Baña, or zio ba kroska; or baitago!

BIGARREN ETSAYA

Jakin-eza “incultura”. Etsai ori, denetan gorrena, ikaragarritzko kalteak egiten ari zaigu, eta ori ezta baserritarren errua; eunka urtietan ez baitu iñork bere ardurik izan, ezta oroitu ere, nonta zenbait partidu politico, botuak bear zituania ezpada; orduan bai agintza galantak beren botuak lortu arte; baña, berena egitian geyago ez oroitzeko ez berentzat eta ez agindutakoaz. Ez ta agintariyak ere orañ arte ezpada, eta ez aztu eunka urte esan degula.

Eta, Elizgizonak? Oyek bai, prosesiyua egin bear zanian santuak ibiltzeko; eta euriya bear zala edo egualdi ona bear zanian rogatibak eskatzera joatian naiz ta gero purrusta egin. Eta onela gizaldi ta gizaldiyak baztertuak egonta... Arritzekoa alda baserritarrak, berekoyak, ezjakiñak eta piyakaitzak izatia?

Oraño gobernuetzaz ezin esango da, ez dala nekazarietaz oroitu; len esan degun “Instituto Nacional de Colonización” eta “Concentración Parcelaria” oyetzaz ganera dirutan ere asko laguntzen du; baña, auxe lana, agindu bat nekazariari laguntzeko ematen danian, bearrik gutxina duten banaka batzuek besterik ez dira ausartzen laguntza ori eskatzera, eta bearrik geyena dutenak utsik. Or baitago bigarren etsaya, “jakiñeza”... Eta, ikasgayetan?... Gobernuak dirua ematen du, eta eskatu zeñek?... Oraño gobernadorearen aurreko Del Moral jaunak esana da, eta oroimena gaizki ezpadau-

kat, 1956 izan bear zuan; errietako agintariak eskatu faltan, berebiziko dirutza galdu zala; eta bitartean toki askotan, eskolak iya lur joan, eta txikiegiak ziralako, pasilluetan eta eskallere-tan umiak ikasten, irurogei edo larogei umerentzak irakasle batekin... Ara or bigarren etsaya, erri agintariak ere etsai orrek lotuak nonbait.

Eta gauzak orrela dirala, batetik lenengo etsayaren mendean; bestetik, bigarren etsayak lotuak, iñorekin piyaeziñik, zergatik, iñork lagundu nai izanta ere uste degu bere onagatik dala; kaletar askok, ogiya jaten ikusi baño belarra jaten ikusi nayago gaituztela. Gobernuak luzatzen digun eskua ezin estuturik, bigarren etsaya tartean degulako, ugaldeak inguratuak, itotzeko zoriyan... Nora jo dezakegu? Galduak ote gera?... Ez, oraindik ateera bat badaukagu, baserritan oraindik iñun baño sinismen geyago dago, oraindik kristautasuna badago baserritan eta kristau geranok badakigu onako... Ez egon biar zer jango eta nola jantziko geran kezketan, Jaungoikoaren naya egin bedi, eta gañerakoa gañez emango zaizute.⁽²⁾ Ara or ugaldeari bidea irikitzeko itxaropen ederra.

Jesukristoren ordezeko aita santuak eskua luzatu digu, berak esan du: Nekazariyaren izaera illunari begiratu bakarrik etzayola egin bear, aurrerapen bidez lan egiteko bidean jartzen lagundu egin bear zayola; nekazari bizitza ondo organizatu bear dala “elkarlaguntza” bidez; eta elkarlaguntza gai oni, garrantzi aundiya eman diyo Aita Santuak. Nekazariak Jaungoikoarekin artu eman aundiya dituala; nekazaritza Jaungoikoaren dei bat bezela dala, eta nekazaritzako lana, jatorra, eta oletako lanen parekoa dala esan du.

Aita santuak nekazarien bizitza “elkarlaguntza” bidez ongi organizatu bear dala esan badu, nori dagokiyo egiteko ori?... Baserritarrai?... Esan degu bigarren etsayak lotuak gauzkala? Agintariyai?... Beren erantzun bearra badute, eta erantzun bear ikaragarriya gañera.

Ez uste izan “oficinako” mai baten atzetik legiak agintzen dituan bearkizunak betearztia bakarrik dala beren egitekoa; baita legiak ematen dituan eskubideak lortu araztia ere beren egitekoa da.

(1) (Cooperativa izenak gure artean indarra nola artu baiduan, euskerazko izena artzeko arrazoya badu, eta nik “Elkarlaguntza” deituko diot).

(2) (Jesukristok esana).

Elizgizonak?... Ortxe daukagu gure itxaropena. Gaur, lotuak gauzkan “jakin-eza” ren kateak urratzea luzegi joango litzake, zergatik, gaur zerbait ikastea, urte askoko arazoa da; ta baserritarrak, batetik modurik ez, eta bestetik non ikasirik ez; eta azkeneko au okerrena.

Apaizak ordea, ez daude “jakin-eza” etsai orrek lotuak, eta ikusi egin bear da, zenbait erritan apaizak egin duten lana. “Zuñiga’n” don Florentino Ezcurra bikariyo jaunak egin duanak, mundu guztiya arrituta utzi du... Mondragoi’n, Arizmendarreta apaizak egin duanak, Europako erri-muga guztiyai eragin diye. Bidanin Aspuru apaizak, eta Urnieta’n Zugazti apaizak egin dutena, ezta bi itzetan esatekoa. Orrelako apaizak dituzten erriyak ez dakite zer daukaten esku artean. Erri oyetan izanak gera zer eta nola lan egiten dan ikusten, baita Zabalegui baserriyan ere izan giñan, eta an ere iru apaiz ikusi genitun, bi sotanakin eta bat sotanik gabe. Eta, gañerako errietan ez al da apaizik?... Ezta gero aski prosesiyua egin bear danian bakarrik baserritarretzaz oroitzea.

Zer ba... Elizan “Dominus bobiscun” kantatu, etxean sartu, eta banketiak egin beardiranian bakarrik etxetik ateratzen dan apaizak bere egitekoa bete aldu ba?... Bakoitzak bere bular gañean eskua jarri dezala, eta ikusi, Aita Santuaren esanak beretzat zer ikusirik badaukan.

BUKATZEKO

Idazkintzako Nobel saria irabazitako jakintsu batek zionez, obia omen da, illuntasunari aitzaki ematia baño, kandela pixtutzia; nik neria pixtu dut, bakoitzak beria pixtutzen baidu, illuntasunak baster aldegingo du gure artetik. Eta ez aztu onako au... “Ez egon biar zer jango eta nola jantziko geran kezketan”, bestek ezpada ere, lanik egiten ez duten txoriyan kontua duanak, goizetik gabera lanian lertzen ari geranon kontua izango du.

Oyartzun’go “Arkale” baserriyan